

Justiziaren aurrean denok berdinak ez garenean

Iñigo URKULLU

EAEko lehendakaria

Euskarak debekatuta du bere tokia justiziaren santutegian». Hala zioen "Euzkadi" aldizkariak 1934ko irailaren 21ean, Jose de Ariztimuño «Aitzol»-ek sinatutako "Ante un Proceso. El Euzkera en los Tribunales de Justicia" goiburu zuen artikulua batean. 89 urte geroago, baieztapen horrek oihartzuna izaten jarraitzen du. Asko dago egiteko. Hitz egin dezagun garbi: herritar batek ezin du Euskadiko epaitegietan prozesu bat hasieratik bukaerara arte euskara hutsean burutu. Ezin du.

Egia da. Aurrerapausoak eman dira, baina hauek oso mugatuak izan dira. Itzultzaileak daude, dokumentuak eta sortzen den informazioa euskaraz eskuragarri dago; baina hori gauza bat da eta, beste bat, oso ezberdina, epaitegi batean sartzen garenetik irteten garenera arte euskaraz bakarrik hitz egiteko aukera izatea. Euskaldun batek, gaur 1934an bezala, ezin du prozesu judiciala bere hizkuntzan bakarrik aurrera eraman.

Hori da Euskadiko hiritar askok eta askok gaur egun bizi dugun errealitatea hainbat arlotan. Baita justizian ere. Galdera da, norbaitek irudikatzen du kontrako egoera? Hau da, prozesua gaztelania hutsean egiteko aukerarik ez izatea? Epaitegi batean sartzea eta gaztelaniaz aritzeko trabak aurkitzea? Zergatik pairatu behar dugu euskaldunok bakarrik errealitate hori?

Duela egun batzuk justiziak historikoki euskararekiko sentsibilitate urria erakutsi duela adierazi nuen Eusko Legebiltzarrean. Mantentzen dut, noski. Euskaldunok harreman eta garantia bera eskatzen dugu justiziaren aurrean. Garantia hori bermatzeko, ezinbestekoa da prozesu judicialak euskara hutsean egiteko aukera izatea. Gertatzen ez den bitartean, ez gara pareko egoeran egongo. Diskriminazio bat emango da.

Izan daitezela 1934ko aipamena eta orain arte luzatutako deskribapena euskaraz arrazoi izandako epai-ebazpen ba-

Diskriminazio ageri

honen aurrean justiziak

berak ahotsa altxatu,

bere buruari gaizki

egindakoak onartu eta

egoera aldatzeko hartu

beharreko erabakiak

hartu beharke lituzke.

Baina oso urrun gaude

errealitate horretatik

tzuen aurrean esan denaren oinarri! Balio dezaten bi baieztapen hauek, epai-ebazpenen argudioetan eta bere azalpenetan sentsibilitaterik ote dagoen ala ez egiaztatzeko.

Diskriminazio ageri honen aurrean justiziak berak aurrerapausoak eman beharke lituzke. Egoera honen aurrean ahotsa altxatu, bere buruari gaizki egindakoak onartu eta egoera aldatzeko hartu beharreko erabakiak hartu beharke lituzke. Baina oso urrun gaude errealitate horretatik. Batzuetan kontrako norabidean doala iruditzen zaigu, adibidez, epaile batek, «euskara ikastea oso zaila» dela sententzia batean argumentu bezala erabiltzen duenean eta justizia baieztapen horren aurka publikoki agertzen ez denean.

Koldo Mitxelena esan zuen: «Euskara ahulegia da arma bezala erabiltzeko». Beti bat egin dut baieztapen honekin. Baita orain ere. Euskara aukera bat da, eskubide bat da,

ez oztopo bat. Euskara elkar ulertzeko zubi bat da, ez bizilagunen arteko harresi bat. Egunduz bizi dugun liskarra gainditu behar dugu. Ezin dugu gure -euskal herritarren- hizkuntza egoera honetan denbora gehiagoz mantendu. Herri honek aspaldi egin zuen elebitasunaren aldeko apustu sendoa.

Irailan, legebiltzarrean adierazi nuen euskaldunok hiztun komunitate txikia osatzen dugula eta arlo askotan, oraingoz, euskara gutxietsita dagoela edo, zuzenean, ez dagoela. Errealitate bat da herritar askok gure bizitzan euskarak toki gehiago izatea nahi dugula. Ez da sentimendu kontu bat bakarrik. Justizia eta lege kontu bat ere bada.

Honen aurrean, gure nahiren eta eskubidearen defentsa egiten dut, baina baita legearen defentsa ere. Euskara, euskaldunon hizkuntza propioa izateaz gainera, hizkuntza ofiziala da gure Erkidegoan, gaztelaniarekin batera. Konstituzioak, Gernikako Estatutuak eta Euskararen Legeak behartzen gaituzte guztiok euskara babestera eta sustatzera.

Euskararen Legeak, 1982an onartu zenak, babes izugarria jaso zuen. Duela lau hamarkadatik hona, lege horrek herritarrei onartzen digu administrazioarekiko harremanean nahi dugun hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea eta administrazioari ezartzen dizkio hori egiazki bermatzeko betebeharrak. Hau da, herritarrek dituzte eskubideak, eta gure Erkidegoko administrazio guzti-guztiak, betebeharrak.

Egunerokoan ikusten dugu esparru askotan asko dugula egiteko oraindik. Zalantzarik gabe, justiziarena da horietako bat. Duela ia bederatzita hamarkada "Euzkadi" aldizkariak salatutakoak, tamalez, oihartzuna izaten jarraitzen du gaur egun ere. Ordua da euskaraz dakigunok erabil dezagun; ordua da aurrera egiteko eta herri honetan herritarren eskubideak egiazki bermatzeko. Gertatzen ez den bitartean, justiziaren aurrean ez gara denok berdinak izango.